



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko apirila · 363 alea

TOKIKOM

POLIKI-POLIKI NORMALTASUN BERRIRANTZ





PIL-PILEAN 363

2020ko apirila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Arrate de Albis Lizarraga
 - 6 **Begira** Aberri Eguna
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 16 **Argazki bidez** Umeak kalean
 - 20 **Erreportajea** Tokiko ekonomia soka finetik zintzilik
 - 26 **Kultura** Musika Eskolak online
 - 30 **Nondik nora** Asier Elizburu
 - 32 **Sakonean** Plazentzia bertsotan
 - 34 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
- 3 **Neuretik** Ane Ugalde *Ama*
 - 18 **Gutunak** Nerea Orbea *Non demontre daude?*
 - 18 **Hausnarketa** Kultura eta kirol ekimen asko bertan behera
 - 19 **Zir(r)ika** P.G.
 - 19 **Puntua** Amaia Argarate *Eta nerabeak zer?*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Ama



ANE UGALDE

Beti esan izan da amatasunak bizitza aldatzen digula emakumeoi. Ordura arte egiten genituen gauza asko egiteari uzten diogu, edo egitekotan ez dugu egiten lehengo maiztasunarekin, behintzat. Hori bai, beste kontu askorekin hasiko gara erditzen dugun momentutik.

Eguneroko errutina aldatzen zaigu, ordutegiak eta ohiturak. Gorputza aldatzen zaigu, azala, ilea. Elkarrizketak eta solaskideak aldatzen dira... Baina aldaketa harrigarriena gure gaitasunek izaten dute. Aldaketa baino, badirudi ama izan aurretik geneuzkan 5 zentzumenei beste dozena bat gehitzen zaizkiela.

Nola da posible bestela, ama izan aurretik lo seko egitetik, orain gure haurrak zarata edo mugimendu txikiena egin orduko begi bat irekitzea?

Nola da posible lehen poltsoarekin soilik jada kargatuta gindoazela pentsatzea, eta orain poltso horrez gain, umearen karroa, karroko poltza, patinetea, kalean zaudela momentua aprobeixatu eta egin dituzun erosketetako poltza eta aterkia ere soinean eraman ahal izatea?

Lehen bi eskuak behar genituen edozertarako. Orain aldiz, batekin malabarak egin ditzakegu bestearekin umea besotan dugun bitartean. Bularra ematean, adibidez, beste gauza asko egiteko aprobeixatzen dugu: hortzak garbitzeko, orrazteko, bazkaltzeko edo ordenagailuan iritzi artikulu bat idazteko, adibidez.

Eta zer esanik ez konbertsazio intermitenteez! Lagunarekin astea nola joan den kontatzeko ez daukagu zertan lasai, parez pare elkarrekin berriketan egon beharrik. Plaza edo parke berean egotearekin nahikoa dugu. Esaldi bakoitza moztu egin beharko dugu, gure txikiari txirristatik jaisten laguntzeko, edo harriak ahora eraman ez ditzan... Baina ez pentsa, ez dugu haririk galduko! "Ba, esaten ari nintzaizuna... harrituta geratu nintzen ikusi nuenean..." Kontuz! Hori ez zapaldu maittia! "Ba hori, zeharo harritu nintzen..." Ene, badoa berriz ere askara... Ez, ez!!

Heroiak gaitasun edo ahalmen berezi bat duten izaki edo pertsonaiak izaten dira. Eta gaitasun horrek berezi eta bakar egiten ditu. Lerro hauek irakurriz, ordea, amaren bat identifikatuta sentitu bada, bakarra ez naizen seinale, eta beraz, heroitik gutxi nik. Edo agian, ama garenok eguneroko bizitzako heroi txikiak garen seinale izango da. Zergatik ez? Bejondeigula!

**AGIAN, AMA GARENOK
EGUNEROKO BIZITZAKO
HEROI TXIKIAK GAREN
SEINALE DA;
BEJONDEIGULA!**

“Hasieran terriblea izan zen, gogor-gogorra”

ARRATE DE ALBIS LIZARRAGA ERIZAIN LAGUNTZAILEA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Arrate De Albisek (Elgoibar, 1962) urte asko daroaz Soraluzen bizitzen, baita erizain laguntzaile lanetan ere. Iazko urrian, Eibarko ospitalera aldatu zuten, zaintza aringarrien sailera. Martxoaren 12tik, Covid19-arekin kutsatutako pertsonak zaintzen jardun du eta bere sailean egoera “gogor-gogorak” bizi izan dituztela kontatu digu.

Zela bizi izan dituzu egunok lanean? Gure lana bestela ere gogorra izaten da. Jende helduarekin lan egiten dugu, euren azken egunetan: mina kentzen, familiekin... Emozionalki nahiko gogorra da, baina guk badaukagu formazioa horretarako. Gainera, lantalde zoragarri bat daukagu.

Martxoan dena aldatu zen. Bai. Gure planta Covid positiboendako prestatu genuen eta gaixoak ekartzen hasi ziren Txagorritxutik, Donostiatik, Galdakaotik eta Basurtutik; adinekoak, 80 urtetik gorakoak. Hasiera terriblea izan zen, gogor-gogorra. Gaixoak oso larri iristen ziren eta hiltzen hasi ziren. Momentu horretan denak hilko zirela pentsatu genuen. Azkenean, gure pozerako, egoera aldatu egin zen. Egia da jende asko hil dela, baina alta emanda ere jende asko bidali digu.

Kolapsatzeko arriskurik izan da? Bai, bai. Lehenengo egunetan, egunean hiru edo lau gaixo heltzen ziren eta guk hogeai pazienterendako lekua daukagu. Dena den, arazo nagusia aislamendua izan da. Ezin duzu gaixo dagoen pertsonaren ondoan jarri eta besarkadatxo bat edo muxu bat eman. Topera geunden eta, gainera, babeserako materialekin lan egitea oso neketsua da: izerdi batean, karetek min ematen dute... Gure eremuan bi alde ditugu: alde garbia eta alde kutsatua. Kutsatutako aldean lan egiteko babeserako materialak jantzi behar dira: amantal urdina, maskara, betaurrekoak... Ere mu horretan lan egitea gogorra eta luzea da. Beti kontu handiz ibili behar duzu. Beti eskuak garbitzen... Gaur egun, aitortu behar dut

batzuetan besarkadak ere ematen ditugula eta laztanen bat ere bai.

Senideentzat ere gogorra izan behar da. Bai, gogorra izan da, baina orain egoera aldatzen ari da. Hasieran familiekiko harreman bakarra telefono bidezkoa zen, medikuarena... Lehenengo pazienteak bakar-bakarrik hil ziren. Orain ere bai. Penagarria da senideak ezin egotea, behin, behintzat... Gu hasi ginen, baten bat larri ikusten genuenean, familiari deitzen. Hasieran, pertsona bakarrari lagatzen genion sartzen, baina orain hiru edo lau pertsona etortzen dira, hori bai, banan-banan. Orain, bideo-deiak egiten ditugu, elkar ikusten dute eta hobeto sentitzen dira.

Beharbada, hori da egoeraren alderik ederrena.

Bai, ni horrek asko lasaitu nau. Gogoan dut, goizalde baten bazegoela gizon bat, oso jatorra, hiltzorian eta bakar-bakarrik. Nik gainerako lan guztiak laga, bere ondoan jarri eta eskua eman nion. Pentsatu nuen: “Kito! Mundua amaitu behar bada amaitu dadila, baina gizon hau ez da bakarrik hilko”. Nik bezala, beste batzuek ere gauza bera egin dute. Horrek motxila handia ekarri digu. Baina denontzat izan da gogorra: horren berri jakin duzuen herritarrontzat, kudeatu behar izan duten politikarientzat... Denontzat da egoera berria eta gogorra.

Aipatuko zenuke kudeaketan hobetu

beharrekoren bat? Bueno, bai. Egunero dihardugu horretan. Gauza asko onartu ditugu eta ulertzen dugu lantegiek eskaerari aurre egin ezinda ibiltzea, baina, kontxo, geu gara barrura goazenak... Horregatik, susmoa izan dugunean material ona gordeta zegoela, planto egin dugu. Hori daukagun beste borroka bat da.

Orain egoerak hobera egin du? Bai. Hasieran dena hankaz gora zegoen eta orain kontrolatuago dagoela sentitzen dugu. Dena den, nik badut beldurra jaitsiera ez ote den etxean gelditu garelako... Ea berriz kalera irteten hasten garenean zer gertatzen den. Nik txaloak bidali nahi dizkiet herritarrei. Jendeak ez daki benetan zenbat laguntzen digun horrek.



BEGIRA

Batera

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Horixe izan da aurtengo Aberri Egunari lotuta gehien errepikatu den berbetako bat, noski, beti ere, balkoi berbaren atzetik. Batera izeneko herritar taldeak mahaigaineratu duen kontzeptuetako bat izan da bateratasunarena, komunitate kontzeptuarekin batera. “Gauzak batera egiteak komunitatea indartzen du”, horra Mikel Irizar Batera ekimenaren bozeramaileak bi kontzeptuok uztartuz proposatu duen egiteko modua. Apirilaren 12an, soralezetar askok jarri zuten ikurrina balkoian eta Txoriak Txori kantatuz edota topa eginez ospatu zuten; batera, bakoitzak bere balkoitik eta bere modura; batzen dituen, beste ezeren gainetik, komunitate baten parte izateko nahia dela erakutsiz.







Soraluzeko tabernariak Arranori elkartasuna erakusten.

Zer gertatuko den zain, kezkatuta

Joan den astean exekutatzen hasi ziren 'Herriko tabernen' kontrako sententziak zalantzan jarri du herriko Arranoren etorkizuna.

Arrano Elkarteke bazkideak eta erabiltzaileak oso arduratuta daude elkartearen etorkizunarekin.

Joan den astean, Herriko tabernen auzian Auzitegi Gorenak 2015ean emandako

sententzia exekutatzen hasi ziren. Horren ondorioz, Euskal Herriko lurralde guztietako hainbat Arranotako kontu korronteak enbargatu zituzten, inolako jakinarazpen eta abisu barik.

Auzitegi Gorenaren sententziak -2014an Auzitegi Nazionalak eman zuen sententzia eta gero Gorenak berretsi- dio, besteak beste, Euskal Herriko 106 Arrano Elkarte dekomisatuta daudela, tartean Soraluzekoa. Sententzia hori exekutatzen hasi dira, partzialki bada ere.

Soraluzeko elkarteetan, aldiz, ez dute inolako jakinarazpenik jaso. Ez dute elkartearen kontrako inolako jardueraren berririk izan eta, gauzak horrela, "zer gertatuko den zain" daude.

Elkartea oso-osorik

2002an hasi zen 'Herriko tabernen' kontrako auzia. "ETAren egitura" finantzatzea egotzita, Auzitegi Nazionalak 106 Herriko taberna konfiskatzeko agindua eman zuen. Sententzia horretan oinarrituta, orain dela bost urte Soraluzera bertaratu zen epailearen arabera, Arrano Elkartearen bi solairuak (elkartea eta taberna) eta barruko genero guztia enbargatuta dago: edariak, elikagaiak, baxera...

Errabal kaleko 12. zenbakia botatzeko lanak hasi dituzte


Datozen asteotan, Errabal kaleko 12. zenbakiko etxea botako dute. Egoera txarrean dago eta jabea arduratuko da eraisketa lanez.

Zandesa enpresak egingo ditu lanak. Etxea hustu eta hura botatzen hasi aurretik, gaian aditu direnek eraikinean dagoen amiantoa kendu beharko dutela azaldu dute.



Abiadura murrizteko bandak

Errabaleko eta Baltegiatiko abiadura murrizteko badenak aldatu dituzte. Oraingoek bost zentimetroko altuera dute eta malda ez da hain bertikala. Herritarren kexuak kontuan hartuta Udalak badenak aldatzea erabaki du. Bandak aldatu badira ere, bertatik zirkulatzeko 20 km/o abiadura-muga errespetatzeko eskatu du Udalak.



Debabarrean gaixotasunak duen garapena.

Gaixo guztiak etxean daude

Covid-19aren krisia hasi zenetik ospitaleratuta zeuden azken bi soraluzetarrek aste honetan jaso dute senda-agiria eta etxean daude; guztira, herriko 11 lagun daude kutsatuta, joan den astean bezala.

Konfinamendua arintzeko garaia iristeaz batera, koronabirusak azken asteotako daturik positiboak laga ditu herrian: ez dago koronabirusarengatik ospitaleratutako herritarrik. Izan ere, krisia hasi zenetik ospitalean zeuden azken bi herrikideek aste honetan bertan jaso dute senda-agiria eta etxean daude.

Kutsatuta dauden gainontzeko bederlatzi herrikideak ere etxean daude. Azken astean, gainera, koronabirusak ez du soraluzetarrik kutsatu. Guztira, 11 herritar dira gaitza dutenak, joan den asteko kopuru berbera. Eta albiste

positiboak: krisiak gogor kolpatu duen garaian ez da herritarrik hil eta Mesedeetako egoitzan kutsatu bakarria egon da, asintomatikoa izan da eta dagoeneko gainditu du gaixotasuna.

Anbulatorioa egokitzen

Egoera hobetzen ari denaren erakusle da ambulatorioan "normaltasun berrirako" bidea prestatzen hasi direla.

Egunotan lau medikuk dihardute bertan lanean, azkenaldiko langile kopururik handiena, orain arte bestelako zereginetara bideratu baitituzte. Gainera, koronabirusarekin lotutako kontsultak jaitsi egin dira nabarmen: "Jendea betiko

gaixotasunengatik ari da kontsultak egiten eta gainera oso formal ari dira zaindu beharreko neurriak errespetatzen", dio Lourdes Letona medikuak.

Bestalde, ambulatorioko harreran babes-manparak jarriko dizkiete datozen egunotan; maiatzaren 5ean, berriz, osasun profesionalei probak egingo dizkiete. Oraingoz, ez diete bestelako xehetasunik helarazi, baina pentsatzekoa da epe motzean ambulatorioaren jarduna orain artekoa baino "normalagoa" izango dela.

Prebentzio neurriak

Egoera horretan egingo zaio aurre Espainiako Gobernuak datozen egunotan hasi eta ekainera arte luzatuko den konfinamendua arintzeko mahaigaineratu duen egutegiari. "Normaltasun berrirako" bide horretan, ezinbestekoak izango dira, esaterako, prebentzio neurriak. Kasu batzuetan, derrigorrezkoak izango dira: garraio publikoan ibiltzeko eta merkatariek eta ostalariek egokitu beharko dituztenak. Norbanakoan kasuan, berriz, oraingoz, ez dira derrigorrezkoak, gomendagarriak, baizik. Zapatua etorkizunean espero dezakegunaren mugarrietako bat izango da; are gehiago umeen lehen irteeran ikusitako hainbat jokabideren ondotik.

"NORMALTASUN BERRIRAKO" BIDEAN EZINBESTEKOAK IZANGO DIRA PREBENTZIO NEURRIAK



Kooperatibako langilea erosketara garraio. FERNAN OREGI.

Laguntza eskaerek gora

Azken asteotan, laguntza eskatu duten herritarren kopuruak gora egin du, batez ere janaria behar dutenenak.

Azken asteotan, zaintzaren gaiak garrantzi berezia hartu du herrian eta herritarren arteko elkar laguntza sare anonimoez gain, erakunde publiko eta gizarte-ekimenekoek buru-belarri dihardute. Guztiek nabarmendu dute egoerak okerrera egin duela.

Gurutze Gorria gainezka

Julian Rodriguez Gurutze Gorriaren Elgoibarko arduradunak adierazi duenez, familia gehiagok eskatu dute laguntza, eskariak gora egin dute eta arazoak dituzte oinarrizko jakiak behar dituzten guztiei erantzuteko. “Lehendik egoera ekonomiko okerrean zeudenak diru-sarrerarik gabe

gelditu dira eta lehen jan-geletan jaten zuten seme-alabei orain etxean eman behar diete jaten. Egia esan, arlo horretan gainezka eginda gaude. Elikagaien bankua geldi dago eta beste bide batzuk bilatu behar izan ditugu janaria biltzeko.”

Zenbakitara eroanda, Gurutze Gorriak Soraluzen 169 pertsonari (47 familia) banatzen die oinarrizko laguntza: janaria, ume txikien mantenurako materiala... Horietatik 17, 3 urtetik beherako haurrak dira. Bestelako laguntza, etxetzeko, 17 familiari eskaintzen zaie. Orain, lehen aldiz, Soraluzeko bertako boluntarioak dituzte, 21 eta

horri esker zerbitzua “hobeto eta gehiago” eskaintzeko moduan daude. “Soraluzek arazo gogorra du pobrezia-rekin. Bailarako pobrezia-tasa altuena du eta orain etorriko den krisiak egoera are eta gehiago okertuko du. Horri erantzuteko ezinbestekoa da herrian bertako boluntarioak izatea eta espero dugu etorkizunean ere jarraituko dutela”.

Eskaerak bikoiztu Caritasek

Caritasek jakinarazitako datuen arabera, apirilean %48 handitu da erakunde horrek Soraluzen bideratzen duen laguntza kopurua. Gainera, uste dute datozen egunetan eskaera gehiago izango direla. Debabarrenean, Aitziber Etxaniz gizarte-langilea arduratzen da arreta eskaintzeaz eta bere esanetan “oso egoera larriak” ikusten ari dira, eskaera kopuruak “ezustean” harrapatu ditu. “Egoerak guztiok harrapatu gaitu apur bat ezustean. Bailaran gertatu den %40ko iguera oso handia da”.

Gizarte Zerbitzuak lanean

Udaleko Gizarte Zerbitzuek ere sentitu dute hazkundea eskaeretan, baina “oraingoz” eskari kopuruari erantzuteko moduan daudela adierazi du Ana Oregi teknikariak. “Koordinazio estua mantentzen dugu Caritasekin eta Gurutze Gorriarekin, irizpide bateratuak

SORALUZEN GURUTZE GORRIAK 169 PERTSONARI BANATZEN DIE JANARIA

lantzen dihardugu, lehentasunak ongi ezarri eta laguntzak modu efizientean bideratu ahal izateko. Larrialdiko laguntzearako ere diru gehiago jaso dugu eta laguntza gehiago emateko moduan gaude. Dena dela, aurreikusten dugu konfinamendu neurriak jeitsi ahala jende gehiago etorriko dela laguntza eske”.

Zaintza Sarearen deia elkarlanerako

Zaintza Sareak 50 boluntarioko taldea osatu du herrian, herritarrek “elkar zaintzeko mekanismoak abiatzeko intentzioz”. Boluntario batzuek, Gurutze Gorriak bideratutako zerbitzuetan dihardute eta beste batzuek, berriz, sareak berak bideratzen dituen laguntzetan: adinekoei konpainia, eskolako lanak egiteko laguntza, euskara errefortzua, Internet konexioa... Zerbitzuok Udalarekin, Gurutze Gorriarekin, Caritasekin eta Plaentxi Herri Eskolarekin batera dihardute bideratzen. Hala ere, kritiko agertu dira Udalaren erantzunarekin: “Komentatu genion 70 urtetik gorako herritar guztiekin harreman sistematikoa mantentzeko ideia, baina Udalak ez du nahi izan bide hau jorratzea”. Era berean, kezka agertu dute familia askoren egoera “larritzen” ari delako eta herrian “zerbait sendoagoa” eraikitzeko beharra nabarmendu dute, “Gurutze Gorriak eta Caritasek berak egoera gainezka egitekotan dagoela diotelako”. Azkenik, elkarlanerako deia egin dute, egoerari “elkarrekin errazago” aurre egingo zaionaren ustearekin.



Eneko Beretxinaga

Eskolako lanak


"8 urteko pertsona bati laguntzen dihardut eskolako zereginetan, eta bidez batez, euskararekin. Astean hiru saio egiten ditugu, 45 minutu inguruok. Uste dut beharrezkoa dela laguntzea, guztiei aukera berdintasuna eskaintzeko eta norbaiti laguntzeak sentsazio atsegina sortzen du."



Aritz Laskurain

Erosketak


"Gurutze Gorriaren bitartez dihardut adineko andre bati laguntzen. Astean behin erosketak egin eta etxera eroaten dizkiot. Uste dut egoera honetan egin dezakegun gutxienekoa dela. Dena den, sentsazioa dut, bizi dugun egoera berezi honetatik aparte ere jende askok behar duela laguntza."



Edurne Unamuno

Euskara

"7 urteko neska bati etxekolanak egiten laguntzeko eskaera jaso nuen Zaintza Saretik. Familia arabiarrekoa da bera, euskaraz entzuteko eta hitz egiteko premia dauka eta hiztegia errepasatzen dugu jolasen bidez, ipuinak kontatu, abestiak entzun... Familia oso eskertuta dago."



Elena Perez

Konpainia

"Zaintza Sarean izena eman nuen eta 92 urteko andre bati deitzen diot, bi egunetik behin edo, berbetaldi bat egiteko. Bakarrik bizi da eta bakarrik sentitzen da. Familiakoek ezin dute bisitan joan eta, behintzat, zaintzaile bat joaten zaio egunean ordubetez. Oso eskertuta dago deitzen diodalako."



Kirol jarduerak egin ezin diren bitartean ez dute kuotarik kobratuko. Argazkian, kiroldegia itxita.

Egoera berria, neurri bereziak

Soraluzeko Udalak 710.000 euro bueltatu beharko dizkio Foru Aldundiari eta horrek aurtengo aurrekontua "erabat" baldintzatuko duenez, lehentasunak ezarri beharko ditu Udal Gobernuak

Koronabirusaren krisiak, osasun krisaz gain, krisi ekonomikoa ere ekarri du.

Krisi horrek, Soraluzeko Udalean ere badu eragina. Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiari ia 710.000 euro bueltatu beharko dizkio Soraluzeko Udalak. Alkateak azpimarratu du horrek "gutziz baldintzatuko" duela 2020ko aurrekontua.

Osterantzean, herritarrei eta herriko zerbitzuei begira, egoerari aurre egiteko hainbat neurri iragarri ditu Udal Gobernuak.

Zergak, kiroldegia eta kultura

Esaterako, Ondasun Higiezinaren Gaineko zerga (IBIa)

ordaintzeko borondatezko epea luzatu egin dute: abuztuan hasi eta 2020ko irailaren 15era arte.

Kiroldegiari dagokionez, kirol jardueren kasuan -ikastaroak, Biraka, xakea eta igeriketa-, martxoko kuotaren erdia automatikoki itzuliko du Udalak maiatzean, edo beranduen jota, alarma egoera amaitu ondorengo hilabetean. Horrez gain, alarma egoerak iraun bitartean eta kirol jarduerak gauzatu ezin diren bitartean, ez du kuotarik kobratuko. Berdin jokatu du kiroldegiko abonuekin ere.

Kultura arloan irizpide bera izango du; hala, zirkuaren eta hari-lanen kasuan martxoko kuota erdia bueltatu egingo du.

Ludotekari eta Gaztelekuari dagokionez, zerbitzuak telematikoki eskaintzen hasi diren arteko kuota zatia itzuliko du Udalak, beraz, hilabete.

Ostalariak eta beste

Bestalde, iragarri du itxita dauden merkatariei eta ostalariei ez zaiela kobratuko zabor-tasaren hirugarren hiruhilekoa. Gune publikoen okupazio-tasaren kasuan, -terrazak-, itxita dauden jatetxeei, tabernei, kafetegiei edo asteroko azoka txikiko merkatariei tasa hori murriztu egingo diete itxialdiak irauten duen epealdiaren proportzio berean.

Enpresak

Enpresen arloan, berriz, zabor-tasan murrizketak izateko aukera emango zaie. Itxita egon diren enpresei hilabete eman zaie bakoitzak bere egoera azal dezan, "idatziz eta dagokion dokumentazioa udaletxean aurkeztuz. Kasuz kasu aztertu ondoren, itxialdiarekin proportzionala den epealdian tasaren murrizketa ezarriko zaie".

Ekonomia berraktibatzeko

Horrez gain, Iker Aldazabal alkateak jakinarazi du herriko ekonomia zela berraktibatu aztertzen ari direla: "Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edota estatuak ematen dituen

ZABOR-TASAN ETA TERRAZEN TASAN MURRIZKETAK IRAGARRI DITU UDAL GOBERNUAK

laguntza zehatzen berri jakin nahi dugu. Bestalde, bilerak egiten gabilta ostalariekin eta merkatariekin elkarlanerako prestutasuna azaldu eta hartu beharreko neurri eta erabakiak beraiekin adosteko asmoz".

Udal instalazioak irekitzea

Eraikin eta zerbitzu publikoak berriro ere noiz zabalduko dituzten, berriz, oraindik ezin da jakin: "Itxiera agindua jaso genuen bezala, egoera normaltasunera doan heinean jakinaraziko digute noiz izango

den posible udal instalazioak zabaltzen joatea", azaldu du Iker Aldazabal alkatea.

Udal langileak

Azkenik, udal langileei buruz galdetuta, alkateak jakinarazi

EKONOMIA ZELA BERRAKTIBATU AZTERTZEN ARI DA, BESTE ERAKUNDEEN LAGUNTZEN ESPEROAN

du guztiak ari direla lanean, batzuk presentzialki - Udaltzaingoa, gizarte langileak, etxez etxeok, udal lantaldekoak-; besteak, aldiz, etxetik telematikoki. Aldazabalek azpimarratu duenez, "Udalak beraien lana segurtasunez egin ahal izateko beharrezkoak diren babes neurriak ahalbideratu dizkie. Lan karga handia izaten ari da, eskerrak eman nahi dizkiet erakusten ari diren prestutasun eta profesionaltasunarengatik", gaineratu du.

ALKATEAREN MEZUA



IKER ALDAZABAL BASAURI ALKATEA

Guztion artean gaindituko dugu

Konfinamenduak eguneroko errutina hankaz gora jarri digun honetan, lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko nizkie soraluzetar guztiei izaten ari diren jarrera eta prestutasunarengatik. Badaude salbuespenak, baina orokorrean, gure herrikideez harro egoteko moduan gaude.

Gogor jo gaitu Covid-19-ak. Hainbat herritar kutsatu ditu. Elkartasuna eta animoak helarazi nahi dizkiet, bai beraiei, baita beraien familiei ere.

Udala elkarlanean dabil egoera zailenak jasaten dabiltzanei laguntzeko. Bolondres Sarea eratu da behar gehien dituztenei zuzeneko zerbitzua emateko. Herriko ostalari eta merkatariekin bilerak egin ditugu egoera zein den jakiteko, hartara, neurri fiskalak adostu

eta egoerari aurre egiteko erabakiak hartzen joateko.

Egoerak ekonomian eragin zuzena izango du, guztion ekonomian, baita Udal kontuetan ere. Apirilaren 2an, Gipuzkoako Foru Aldundikarekin izandako bilera telematikoa, jakinarazi ziguten Aldundiaren zerga bilketa %20-25an jaitsiko dela. Ondorioz, Udalek proportzio berean bueltatu beharko diogu Foru Funtsa Aldundiari. Soraluzeri 709.483,25 euro bueltatzea dagokio. Horrek

**709.483,25 EURO
BUELTATZEA DAGOKIO
SORALUZERI; HORREK
GUZTIZ BALDINTZATUKO
DU AURREKONTUA**

guztiz baldintzatuko du 2020rako aurrekontua.

Lehentasunak ezarri beharko ditugu, aurreikusitako zenbait proiektu eta ekintza ezingo dira gauzatu. Momentu latza datorkigu, baina herri honek egoera txarrak pairatu ditu historian zehar, eta hau ere guztion artean gaindituko dugu, elkarlanean, auzolanean eta elkartasunetik.

Azkenik, ez nituzke ahaztu nahi, euren lanari esker, egunero herriko nagusiak zaintzen eta laguntza ematen dieten etxez etxeko laguntzaileak; ezta Zaharren Egoitzako langileak ere. Lan paregabea egiten zabiltzate. Nire azken hitzak gure etxeetako haur eta gatzetxoentzat dira. Zuek bai daukazuela meritua. Bejondeizuela.



Ana Maiztegi.

"Gidaritza falta"

EH Bilduk "egintzarik eza eta aldebakartasuna" ikusi du Udal Gobernuaren egiten ari den krisiaren kudeaketan eta lankidetzaren beharra aldarrikatu du.

"Soraluzek daukan egoera sozioekonomikoak Udalean ordezkariak daukagun partidu guztien adostasuna eskatzen du". Esaldi horrekin laburbildu du Ana Maiztegi EH Bilduko zinegotziak gaur egun bizi dugun krisiari aurre egiteko udal ordezkariak izan beharko luketen jokabidea.

Krisi mahai baten beharra

Baiezatzte hori xehetasunekin jantzita, oposizioaren koalizioaren ordezkariak beharrezkoak ikusten ditu hainbat jardueraren martxan jartzea, elkarlanean: "Krisi mahaia osatu, koordinazio espazioak sortu, premien diagnostikoak egin, Udal Gobernuaren eta

oposizioaren kideen arteko harremanak balioan jarri... Ez da halakorik egon, oposizioaren proposamenei eta lankidetzaren eskaintzari entzungor egin die alkateak (...) Egoerak guztien lankidetzaren eskatzen du, beste edozein motibazioaren gainetik". Horregatik, oposizioaren dagoen koalizioak uste du Udal Gobernuaren "egintzarik eza eta aldebakartasuna" ari dela erakusten krisiaren kudeaketan.

"Egintzarik eza?"

Horrez gain, herrian "gidaritza falta" nabari da, Maiztegiaren esanetan eta Udal Gobernuaren "aurre hartzea" sumatzen dute faltan: "Taldea zaurgarriaren arreta, jende-pilatze lekuen antolaketa

"OPOSIZIOAREN PROPOSAMENEI ETA LANKIDETZAREN ESKAINTZARI ENTZUNGOR EGIN DIE ALKATEAK"

"GERTUKO HERRIETAN ETA EZ HAIN GERTUKOETAN EGIN DA; GUREAN, EGINTZARIK EZA?"

(erosketak), kaleen garbiketa eta desinfekzioa, udal zerbitzuen egokitzapena; enpresa, negozio txikiak eta tabernen itxierak sortutako kalteei erantzutea... Gertuko herrietan eta ez hain gertukoetan egin da. Gurean, egintzarik eza?", galdegin du.

"Elkar zaintzearen garrantzia"

Horren parean, berriz, bilkideek uste dute herritarrek izaten ari diren jarrera "azpimarragarria" dela: "Herriak erakutsi dituen ardura, pazientzia eta elkartasuna; bai agintarien jarrabideak betetzeko, baita premiei erantzuteko ere".

Eta txalotu egin dituzte herritarren ekimenak: "Ziurgabetasun momentuak pasa ditugu; komunikabideen menpe bizi izan gara: prentsa, telebista, Plaintxia.eus, sare sozialak...; ikasi dugu zer egin daitekeen eta zer ez; halakoari edo bestelakoari erantzun diogu; eta batez ere, elkar zaintzearen garrantzia nabarmendu dugu: ondokoaz kezkatu, lagundu, partekatu, zoriondu, abestu... Herritarren ekimen txalogarriak guztiak ere".



Pascual Churrucaren orubean 29 etxebizitza eraikiko dituzte

Galdu ezineko "aukera"

Udal Gobernuak uste du Pascual Churrucako oruberako Eusko Jaurlaritzarekin adostu duen proiektua "aukera" dela Soraluzerentzat, eta "hori ezin dela eta ez dela baztertu behar"

Pascual Churruca lantegiaren orubean Udal Gobernuak garatu nahi duen proiektuarendako moratoria eskatu zion EHBildu koalizioak -inf. martxoko aldizkarian-.

Hari erantzunez, oharra kaleratu du Udal Gobernuak (EAJ-PSE-EE). Bertan, oro har, azpimarratu du "dituen eta eskaintzen zaizkion baliabide eta aukerekin, Soraluzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) garatzen" ari dela, alderdi politiko guztien artean adostuta dagoen HAPOa, alegia.

2006tik egiten den lehena

Pascual Proiektuaren xehetasunak ere helarazi ditu gobernuak. Haien arabera,

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak honako puntuak adostu dituzte: babes ofizialeko eta alokairuan emateko 29 etxebizitza eraikiko dira; Jaurlaritza arduratuko da lurzorua deskontaminatzeaz; urbanizazio berean ibaiko pasealekuko urbanizazio lanak egingo dira; obrak lau urtean bukatuko dituzte, lurraren lagapena eskritura publikoan formalizatzen denetik zenbatzen hasita; etxe berrien beheko partean eraikiko dituzten lokalen erabilera -200 m² asko jota- doan lagako dio Jaurlaritzak Udalari, baita lau etxebizitza ere, "Olaldean etorkizunean egin daitekeen jardueraren ondorioz, bertakoei bizilekua emateko".

Bestalde, proiektuaren harira, Udal Gobernuak gogora ekarri du, 2006az geroztik Soraluzen ez dela egin ezaugarri horiek dituen inbertsio publikorik; gogora ekarri du, baita ere, etxebizitzak eraikitzeko orubearen jabea Udala bera dela -2018an eskuratu zuen 404 euroren truke-, eta orubea hiri-lurzoru modura dagoela kalifikatuta HAPOan, honelaxe jasota: "Dauden industria-erabilerak Soraluzeko hiri-errealitatearekin bat datozen etxebizitzagatik ordezkatuko dira kokapen horretan".

Kultura ekipamendurako Erregetxea Esandako guztia kontuan hartuta, Udal Gobernuak azpimarratu du proiektu horrek udal diru-kutxarentzat "ia zero euroko kostua" duela eta, beraz, Soraluzerentzat "aukera" bezala ikusten du, baztertu ezin den aukera. Gobernuaren esanetan, "iritzi bera" dute HAPOa lantzeaz arduratzen diren teknikariek, "hirigintza-garapen horretan, etorkizunean, Olaldea eremuaren garapena errazteko modu bat dela ikusten baitute". Halaber, adierazi du Olaldeko garapena EHBilduk, EAJk zein PSE-EEK "estrategikotzat" jotzen duten arren, askoz zailagoa dela hura "zehaztea eta ekitea", lur ia guztiak pribatuak direlako. Bukatzeko, gogora ekarri du kultura ekipamenduetarako eraikina Erregetxean dagoela aurreikusita HAPOaren arabera.

PASCUAL CHURRUCAKO ORUBEKO PROIEKTUAK "IA ZERO EUROKO KOSTUA DU UDAL DIRU-KUTXARENTZAT"

Umeak kalean

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI.

Azkenean heldu da umeak berriz kalera ateratzeko eguna, askok eskatu baino beranduago, baina heldu da. Umeek arnasa hartu dute eta heldu askok ere bai eurekin batera. Herriko kaleetan umeak eta helduak elkarrekin ikusteak nolabaiteko normaltasun irudia ekarri du berriz herrira, eta bizitasuna eta poza, nahiz eta egoerak eta bizimoduak oso ezohikoa izaten jarraitzen duen.

Horrek gehiago balio du heldu batzuen eta besteen umekeriek baino, ez duzue uste?





GUTUNAK

Non demontre daude?

NEREA ORBEA

Sei aste joan dira. Izaki biziduna ere ez da. Birus txikitxo honek gizakion mundua hankaz gora jarri du. Hartu du naturak bere tokia; argi eta garbi adierazi digu Lurraren erreinuan, nork agintzen duen.

Gure bizimoduko lan garrantzitsuak, ondo planifikatutako oporrak, mila koloretako ekintzak eta gizarte egitasmo guzti-guztiak minimizatu dizkigu. "Zomorro" nimino honek txokoratu egin gaitu, beldurtuta izkutatzen behartu eta kao-z irabazi.

Eta geldialdian, halaber, beste era batetan bizitzen ari garen hontan, gure gizarte baloreak berrikusteko denbora izaten ari gara, munduan sortu ditugun desorekak parez-pare ikusten ditut, nik, behintzat.

Alde batetik; Emakumeon tokia, pobrezia sakontzea,

adreiluaren burbuila, prekaritatea orokortzea, kontsumitu beharra, itxurakeriak sareetan, botere borrokak... eta beste hitz potolo piloooo bat.

Bestetik; Osasuna, gertutasuna, lasaitasunez ibiltzea, musikaz gozatzea, errezetak asmatzea, arratsaldeko eguzkia hartuz, txorien kantak entzutea, eta 8 etako txaloekein, ibai garbiari begiratzeko.

Hori bai, teleberria ikustean, ordea, lanbide "esentzialen" estatus berria, zenbaki eta grafikoen garrantzia, eta gai bakarrak sorrarazi dezakeen antsietate eta asperdura, besterik ez dut sentitzen.

Non demontre daude etorkizun jasangarriago batetarako hausnarketak? edo kalitatezko kultur unetaz gozatzeko aukerak? Non dena pasatu ondoren persona helduagoak eta gizarte

orekatuago bat izateko plateamenduak? Eta naturari zor diogun errespetua lantzeko bidea?

Euskal Jaiak bertan behera

EUSKAL JAI BATZORDEA

Egoera zein den ikusita, erabaki dugu ekainean egitekoak ziren Haurren Euskal Jaia eta Ezoziko Erromerixa Eguna bertan behera lagatzea. Ez dugu baztertu udazkenean egiteko aukera, baina hori aurrerago erabakiko dugu.

Irukurutzeta Eguna bertan behera

ANTOLATZAILEAK

Larrialdi egoera dela eta, erabaki dugu aurtengo Irukurutzeta Eguneko ekitaldiak bertan behera lagatzea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Kultur eta kirol ekimenak

Covid19-a dela eta, kultur eta kirol ekimen asko bertan behera gelditu dira. Etorkizunari begira ere, oraingoz, zalantza da nagusi.



ABEL OLAIZOLA
KULTURA ZINEGOTZIA

"Aurretik hasita geunden jaiak antolatzen eta gero jarraitu dugu. Ez dakigu egingo diren eta ostalariekin berbetan dihardugu bestelako formula batzuk aztertzen. Dena dela, maiatzaren 10ean entzungo dugu Lehendakariak zer esaten duen eta erabakiko dugu."



JOKIN MARTINEZ
SORALUZE, MUGITUZ

"Apirilerako eta maiatzeko antolatutako ekintzak bertan behera laga ditugu dagoeneko. Orain, bizitza erdigunean jarri behar da, kirol ekintzak etorriko dira dagokien momentuan. Egoera egonkortzen denean, espero jendea prest egotea berriro aktibatzeko".

ZIR(R)IKA

P.G.



PUNTUA



AMAIA ARGARATE

Eta nereabeak zer?

Asko hitz egiten ari gara egun hauetan segurua ote den haurrak eta nerabeak etxetik irtetea; zela, noiz, zeinekin, zertarako... irten behar duten (seguru aski gauzak aldatu egingo dira kolaborazio hau idazten dudanetik Pil-pilean aldizkarian argitaratzen denera arte).

Igandetik aurrera, 14 urtera arteko haurrak kalera irten ahalko dira ordu betez, osasun neurriak zainduz, noski.

14 urte baino gehiago dutenei buruz, hau da, nerabeei buruz, aldiz, esan den gauza bakarra da DBHko 4. mailatik aurrera (16 urtetik aurrera) ekainean, posible bada, eskolara bueltatuko direla.

Eskolara joan beharko dira, bai, baina oraingo ezin dira kalera irten egin ere, ez bada erosketaren bat egitera, jakin arren duten adina zaila dela, beraiendako garrantzitsuena lagunak direla, eta hainbatek arazoak dituztela 24 orduan gurasoekin edota familiekin etxean elkarrekin bizitzeko.

Bestela esanda, bi hilabetean etxean sartuta egon diren gazteak ekainean eskolara joan beharko dira (batzuk), han ere lau pareten artean egotera; baina ordura arte ezin izango dute banaka paseatu edota kirolrik egin.



AITOR ATXOTEGI
PILOTA ELKARTEA

"Apirilean jakinarazi ziguten txapelketak bertan behera geratu direla, abisu berrira arte. konfinamendua arintzean, nagusiak, akaso, banaka hasi ahalko dira entrenatzen. Eta, akaso, irailean umeak ere bai, mugekin bada ere. Txapelketena zailago ikusten dut, ikusleengatik".



MIREN GALLASTEGI
KUKUMIXOKO
KOORDINATZAILEA

"Ludotekako eta Gaztelekuko jarduna telematikoki bideratzen ari gara eta orain udalekuena dator. Garbi dago ezingo direla egin orain arte bezala, baina beharbada, beste modu batean, neurri bereziekin... ez dakigu. Ume askok parte hartzen dute eta eurentzat garrantzitsua da".



Tokiko ekonomia jokoan

Koronabirusaren krisiak hankaz gora utzi du orain arte ezagutzen genuen errealitatea. Egoera oso gordin batzuk azaleratu ditu, baita positibo batzuk ere, bai maila pertsonalean baita maila ekonomikoan ere. Osasun krisia hobera egiten ari den neurrian, etorkizunarekiko kezka ari da nagusitzen herritarren artean, batez ere, ekonomiari dagokionean.

Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Ubane Madera**



Ezkerreko orrian, Kooperatiba zabalik eta erosleak ilaran sartzeko zain.

Goian, Martin Bernedo, KLB6 jantzidendako ugazaba, krisia hasi zenetik itxita izan duen saltokiaren aurreko aldean.

Koronabirusak ekarritako osasun krisiaren ondotik krisi ekonomikoa etorri da. Urteko lehen hiruhileko langabezia datuek diote, oraingoz, krisiak gehien kolpatu duen sektorea merkatariena eta ostalariena dela, lehenagotik ere ahulduta zegoen sektorea. Egoera latza bizi dute askok, batik bat ostalariek, eta etorkizun beltza aurreikusten dute. Itxita dauden saltokiak eta autonomoak ere oso arduratuta daude. Lantegiak ere ez dira libratu; herriko hainbat lantegi ERTEak edo bestelako murrizketak egiten ari dira. Laguntza eske ari dira guztiak eta oraindik ez zaie laguntasunik ailegatu.

Herritarron boterea

Txanponaren beste aldean, berriz, zabalik dauden saltokiak daude. Erabateko konfinamenduak behartuta, erosketa ia guztiak herrian egiten dihardute herritar gehienek. Horrek nabarmen handitu ditu saltokiaren irabaziak. Maila berean edo antzerakoan jarraituko bagenu, dendetan langile gehiago beharko lituzkete, beraz, lanpostuak sortuko lirateke herrian; produktu gehiago ere ekarri beharko lituzkete; eta oro har, denda berriak beharko lirateke. Berdin gertatuko litzateke tabernekin ere. Koronabirusaren krisiak agerian utzi du herritarron boterea. Erakutsi du herriaren onuran eragitea gure esku ere badagoela. Eta, batik bat, erakutsi du zein zaila izango litzatekeen bizimodua herrian dendarik edo tabernarik egon ez eta erosketa guztiak egitera inguruko herrietara joan beharko bagina; eta ez, orain egiten den moduan, norberak nahi duenean. Datozen orriotan, bertako ekonomiaren ezaugarri nagusiak jasotzeko ahalegina egin da.

"Horrela jarraituko bagenu, langile gehiago beharko genituzte"

MILA MORO

KOOPERATIBA ELKARTEA

"Martxoko bigarren hamabostaldian %40 igo ziren salmentak. Apirileko salmentei dagokienez, berriz, oraindik ez dugu datu finkorik, baina pentsatzen dugu %50-%60 handituko direla. Ikusten ari garenez, erosle gehiago eta erosle berriak etortzen ari dira, azken horietako batzuk orain arte herrian erosteko ohiturarik ez zutenak. Bestalde, erosleek egiten duten erosketa bera ere handiagoa da. Erosketek horrela jarraituko balute, gure kasuan, langile kopurua handitu beharko genuke, baina beti ere jendeak herrian



Mariapi Etxeberria, Axun Soraluze, Isabel Aristi, Mila Moro eta Nerea Unamuno.

erosten segituko balu. Era berean, guk, adibidez, badugu lekua produktu berriak ekartzeko; eta horrela jarraituz gero, ekarri egingo genituzke. Baina denok jabetu beharko ginateteke zein inportantea den

herrian erostea, dendariendako zein herriarendako, lehen esandakoarengatik. Beraz, egoera hau "normaltzen" denean, mezua honakoa da: bertan erosten jarrai dezagun, denon onerako baita".

"Hasieran gehiago saldu genuen, baina ya lehengoan gaude"

IÑAKI ETXABE

HARAKINA

Erabateko konfinamenduan, -ekonomia jarduera eten zenean, apirilaren 1ean hasi eta apirilaren 14ra arte-harategiko fakturazioak gora egin zuela igarri zuten Etxabe harategian. Hori, baina, dagoeneko bueltatu da lehengora, erabateko konfinamendua eten eta berehala, Iñaki Etxabek esplikatu duenez. "Apirileko lehen hamabostaldian, %18-20 handitu zen gure fakturazioa. Saltoki espezializatua izatean -harategia- denetik saltzen dutenek baino igoera txikiagoa izan genuen, baina fakturazioa



Mari Carmen Amoros eta Iñaki Etxabe, harategian.

igo zen, bai. Bezero berriren bat etorri zen, bakanen bat; ikusi genuenez, salmentak erosten zutenek gehiago erosten zutelako handitu ziren. Edozelan ere, dagoeneko bueltatu gara lehengo egoerara

eta salmenta kopurua jaitsi egin da. Ikusiko dugu zer pasatzen den gero. Arduratuta gaude, krisian sartu gara eta ikusi egin behar horrek zela eragiten duen. Baina dena pasatuko da!"

"Herritarrak diruz justu badaude, zela erosiko dute gero?"

AINHOA IBARZABAL

BIZIKALE ELKARTEA

"Bizikale elkartearen dauden 37 saltokietatik 15 bat itxita daude. Zabalik daudenen artean, elikagaiak saltzen dituztenak gehiago ari dira saltzen. Badira egun erdiz zabaltzen dutenak ere; horiek gutxiago saltzen ari dira. Beste batzuk zerbitzua ematen ari gara (aseguru-etxeak...), baina ez produktu berriak saltzen. Beste saltoki batzuk (KLB, Benito altzariak, Josu Bitxidenda, Aritz Laskurain fisioterapeuta...) itxita daude; ile-apaindegiak ere bai. Gainera, haiek buelta zaila izango dute, distantziak gorde



Ainhoa Ibarzabal

beharrarengatik. Gero, tabernak daude, denak itxita. Arazo handiak ikusten ditugu. Laguntzei dagokienez, oraindik ez dakigu segurua ezer, dena dago airean. Laguntzak eskatzeko baldintzak gogorrak

dira. Oraingoz, ez dugu batere laguntzarik. Udalarekin ere egon gara eta proposamen batzuk egin dizkiogu: herritarrek herriko komertzioetan erabiltzeko 500 bonu ateratzea eta dirulaguntza zuzenak ematea. Zentzu horretan, Udalaren erabakiaren zain gaude. Baina orokorrean beldur handia dago, hau pasatutakoan ea zer gertatuko den. Izan ere, krisian sartuta gaude eta horrek dena ukituko du. Jende asko dago langabe, ERTEetan ere bai, eta jendeak diru gutxiago izango du. Beraz, herritarrak diruz justu badaude, zela erosiko dute gero? Horren beldur ere bagara".

"Ekainaren hasierara arte itxaron beharko da zerbait ikusteko"

SEUNGWOO HAN

GOL ENPRESAKO ZUZENDARIA

GOL Global SM enpresan oraindik ez dute zer etor daitekeen aurreikusiten. Aste Santuko oporrak luzatu ondoren, gradualki lanera bueltatu dira. Orain, ERTEa egin dute; bestela esanda, aldi baterako lan erregulazio espedientea, apirilaren 27tik uztailaren 24ra bitartekoa. Langile guztien lanorduen %60ari eragingo dio erregulazio espedienteak.

GOLeko zuzendari Seungwoo Hanen esanetan, GOL egoera larri eta zail hau gainditzeko hasierako etapetan dago. Hanek uste du "unerik



Seungwoo Han.

zailena apiriletik maiatzera" biziko dutela. Hori horrela, "banan-banan" egin beharko diete aurre "sortzen diren" zailtasunei". Etorkizunari buruz galdetuta, berriz, GOLeko zuzendariak dio

oraindik goizegi dela ezer aurreikusteko, eta beraz, aurreratzeko. Hanek uste du ekainaren hasierara arte itxaron beharko dela etor daitekeenari buruz zerbait jakiteko.

"Zela irtengo gara zulotik?"

MIREIA GABILONDO

TABERNARIA

"Zeharo arduratuta gaude. Zabaltzen azkenak izango gara eta gainera, zabaltzen dugunean, murrizketa oso handiak izango ditugu: bezero kopuru mugatua, prebentzio neurri handiak... Horrela hasten bagara, lau euro sartuko ditugu, eta sei gastatu, prebentzio neurrietan.

Gainera, gure langileen soldatak-eta ordaindu egin behar ditugu, izan ere, irailera arte, ezin da inor kaleratu. Berez, guk ez dugu inor kaleratzerik nahi, noski, baina zulotik irten arte arnasa apur bat behar dugu. Oraingoaz, ez



Mireia Gabilondo itxita duen taberna aurrean.

dugu arnasarik. Zela irtengo gara zulotik? Gainera, udazkenean beste brote bat baldin badator, zer? Jausi behar gara ostalari mordoa. Bat ixten hasten bada, besteak atzetik etor daitezke. Udalaren

laguntza beharko genuke, orain eta gero. Orain, oraingo beharrei erantzuteko. Gero, zabaltzen dugunean, kale-bizitza zelanbait bultzatu dezan, jendea kalera atera dadin. Oso txarto gaude".

"Ordaindu beharreko faktura asko daude eta ez dugu laguntzarik"

MARTIN BERNEDO

KLBG

"Martxoaren 12tik itxita gaude, laster bi hilabete. Flasheatuta nago. Negozioa itxita, ezin etxetik irten... Demaseko kolpea ari da izaten.

Dendan zuloa egiten ari gara. Ordaindu beharreko faktura asko daude eta ez dugu laguntzarik. Zaborra eta ura ez dugu ordainduko, baina hori guretzat ez da laguntza handia. Arropa geldu dugu; orain saltzen ez dena, gero ezin da saldu. Bi hilabete galduta ditugu, beraz, denboraldia ia galduta dugu. Online saltzen ari gara zertxobait, kaxa zeroan ez



Martin Bernedo itxita duen jantzidendaren kanpoko aldean.

lagatzeko, baina hala ere... Etorkizuna, berriz, zeinek daki zela joango den, oso gaitza da jakitea. Esaten dutenez, denda txikiok maiatza erdialdean edo zabalduko dugu. Orduan ere ikusi egin behar, bezeroak

banan-banan edo binaka sartu ahalko dira. Bestalde, eskertuko genuke geratzen den denboran beherapen kanpaina handirik egongo ez balitz, deskontu txikiak akaso bai, baina bestela..."

"Orain, batera jarduteko momentua da"

ALBERTO ARIZAGA

EKONOMIA ADITUA

Alberto Arizaga urte luzez ibili da ekonomia jardunean murgilduta.

Zela ikusten duzu egoera?

Murrizketak ezabatuta, normaltasuna itzuliko da tokiko arlo ekonomikoetara, muga handiekin. Itzuleraren erritmoa markatuko du tokian tokiko egoerak. Horrek murriztu egingo du pertsonen mugikortasuna. Hori onuragarri gerta daiteke tokiko merkataritzarentzat, baina, jarduera guztiak ez dira aldi berean "normalko". Hasieran, tokiko kontsumoak elikagaien sektoreari egingo dio mesede. Haiak, baina, lehiakortasun handia dute online erosketekin, beraz, produktua, prezioa eta zerbitzua doitu beharko dituzte. Ezegonkortasun ekonomikoak jantzizintzan eragingo du. Uda pasatzeko armairuak nahikoa beteta ditugu. Eta ostalaritzan eragin handia izango dute prebentzio neurriek, beste guztiaz gain. Sektore horri kostako zaio gehien "normaltzea". Negozio lerro berriak gehitu beharko lituzkete, adibidez, jana etxera eramateko zerbitzua. Industria, berriz, mundu globalizatuaren menpe izango da.

Pandemiaren garapenari dagokionez, erabateko konfinamendua apirilaren amaierara arte luzatu izan balute hobeto. Enpresa asko izan dira oporretan Pazko asteen. Gainera, produkzioa



Alberto Arizaga.

eta komertzializazioa nabarmen jatsi dira.

Adituen arabera, pandemia txertoarekin ala inmunitatearekin kontrola daiteke. Lehena ez da iritsiko, gutxienez, urtebetera arte. Inmunitatea geratzen zaigu. Horretarako, herritarren egoera ezagutu beharra dago, testak eginez. Horrek emango digu egoeraren diagnostiko erreala eta pandemia kontrolatzeko erabaki zuzenak hartzea ahalbidetuko digu. Apirilko azken hamabostaldian, helburua izan beharko zen beharrezko testak eta prebentzio neurriak eskuratzea birusarekin kontaktua izan dutenendako eta sanitario eta herritar guztiendako.

Enpresa asko eskatu dute ERTEa...

Egoerak galdera ugari mahai-gaineratzen ditu: Non daude

NON DAUDE MERKATU
LIBREAK GUZTIA
ERREGULATZEN DUELA
DIOTEN LIBERALAK?

merkatu libreak guztia erregulatzen duela dioten liberalak? Badirudi hori horrela dela egoera ona bada.

Okertzen denean, berriz, "Aita Estatuak" eman egin behar du. Horrela jokatu behar du orain? Uste dut baietz, langileengatik. Baita bertan lanpostuak sortu eta zergak bertan ordaintzen dituzten enpresengatik ere.

Beti ere publikotasuna balioan jarriz. Batzuek planteatu dute "enpresak aldi baterako nazionalizatzea". Ez dakit hori den bidea, edo hobe den, Alemaniak egin duen bezala egitea: denboraldi batez enpresen kapitalean parte hartu. Azken horrek arriskua dauka oker funtzionatuz gero; baina ondo funtzionatzen badu, altxor publikoarendako onuragarria da.

Zeini dagokio aurrean jartzea?


Erakunde guztiak bateratutako ekintzak egin beharko lituzkete, handiek eta txikiek. Handienak dirua ematen hasi beharko lirakeke, zorrotasunez. Baterak jarduteko momentua da. Kritika politikoa zilegi da, baina positiboa; zorritzarrez, hemengo politikarien maila baxu samarra da. Adibiderik onena Portugalgo gobernuak da: batasuna lortu dute. Horrela, emaitza askoz ere positiboagoak lortuko dituzte.

ADIBIDERIK ONENA
PORTUGALGO
GOBERNUA DA:
BATASUNA LORTU DUTE

Musika Eskolak online

Musika Eskolak ez du eten bere jarduna. Lehenengo astetik dihardu eskolak telematikoki eskaintzen.

Martxoaren 16an, larrialdi egoera ezarri osteko lehen lanegunetik bertatik hasi zen Musika Eskola bere jarduna telematikoki bideratzen. Nagore Sanz eskolako zuzendariak azaldu duenez, hasieratik erabaki zuten eskolak ematen jarraitzea, jarduera bertan behera laga ezker, arazo asko ekar zitzakeelako eskolaren kudeaketan. “Konplikaturia izan da zerbitzua telematikoki bideratzea. Ikasle guztiak ez daude egoera berean,



Domentx Uzin eskolak ematen.

batzuk oso ondo moldatu dira eta beste batzuei gehiago kostatzen ari zaie, hainbat faktorerengatik. Gainera, interneten dena geldoagoa da, denbora gehiago behar da gauza bera egiteko, baina erreminta berriak ere baditugu eta aurrera goaz”.

Deskontua kuota batzuetan

Aste honetan bertan, Musika Eskolako zuzendaritzak erabaki du taldekako eskoletan %30eko deskontua ezartzea, ikasle bat baino gehiago dauden eskoletan zerbitzu egokia bermatzea zailagoa delako. Horrekin batera, zuzendaritzak erabaki du “kontuan izatea” ekonomikoki larri dauden edo beste edozein arazo suertatu zaien familien egoera, beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzeko”.

Kultur ekitaldiak bertan behera

Larrialdi egoera ezarri zenetik herrian egitekoak ziren hainbat kultur ekimen bertan behera gelditu dira eta beste asko zalantzan daude.

Aste honetan bertan jakinarazi dute maiatzean eta ekainean egitekoak ziren Irukerutzeta Eguna, Euskal Jaiak eta Eoziko Jaiak ez direla egingo. Zalantzan daude beste ekitaldi asko ere: San Andresko jaiak, Udate gaua, udalekuak... Pentsatzekoa da ezingo direla egin, ez ohiko eran behintzat, baina oraindik ere ez da hartu behin betiko erabakirik. Horixe da herriko jaien kasua ere. Abel Olaizola kultur zinegotziak

adierazi duenez, Udalak ia lotuta zuen egitarau osoa, baina ez da segurua egin ahalko diren. Hori dela eta, Udalak ostalariekin berbetan dihardu, jaiak egiterik ez balego, egingarriak izan daitezkeen beste formula batzuk aurkitzeko: “Aurreko asteburuetan ekitaldiak egin denboran banatuago edo bestelako formula batzuk... herria girotzeko. Ekonomikoki ere murrizketak egin beharko

dira eta horrek esan nahi du lehentasunak zehaztu beharko direla”.

Liburutegia zabaltzeko aukera aztergai

Udalak liburutegiko zerbitzua online bideratzeko aukera ere aztertzen dihardu; irakurleak liburua internet bidez eskatu ahalko luke eta gero udal-langile batek etxera eroango lioke. Ez da segurua ezarriko duten, baina aztertzen dihardute. Bestalde, Udalak pintura eskolarekin antolatuta ohi duen marrazki lehiaketa, aurrean, internet bidez egingo da.

Zalantza barik, internetarekin batera, irudimena izango da datozen hilabeteetan kultur ekimenak antolatzeko osagai nagusia.

Nola egiten diogu aurre COVID-19ari Gipuzkoan?

1. GIZARTE ZERBITZUAK: txoke plana

COVID-19aren harira prebentziorako zerbitzuak eta informazio-sistemak indartu dira.

Telezaintza:
900 43 43 43



- COVID-19 testuinguruan zerbitzuak jasotzeko eta orientaziorako.
- Zentroetako erabiltzaileak aldi baterako etxera itzultzeko kudeaketa lanak.

- Egoitzatako langileriarri ostatu emateko zerbitzuaren informazioa eta eskabideak.
- Familiei eta langileei laguntza psikosoziala.

Herritarren arreta:



- **943 11 25 11**
- info.gizartekintza@gipuzkoa.eus
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta:
900 840 111

2. EKONOMIA SUSTAPENA: autonomoak eta enpresak



Jarduera ekonomikoen inguruko informazio guztia zure esku jarri dugu eta prozesuan laguntzeko entitate sare zabala osatu dugu.



Osasun laborala



Laguntza publikoak



Arlo laborala



Zerga arloa

3. OGASUNA: ordainketak eta datak

Autonomo eta enpresentzako neurriak.

Zergadun guztientzako neurriak.



Autonomoen PFEZaren ordainketa zatikatuak

Ez da autolikidaziorik aurkeztu behar (1. eta 2. hiruilekoak).



Gerorapen berriak

300.000 euro arte handitzen da modu automatikoan geroratu daitekeen zorraren zenbatekoa.



1. hiruilekoko zerga ordainketa

Lehen hiruileko zerga ordainketak ekainaren 1era atzeratzen dira enpresa txiki, mikroenpresa eta autonomoentzat.



Errenta online

Herritar guztiek etxetik mugitu gabe aitortpena aurkezteko bideak ahalbidetu dira.

www.gipuzkoa.eus
Guztion lankidetzeta eta ahaleginarekin, lortuko dugu.




GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

Artista bikainak

TESTUA UBANE MADERA



Fin-fin ari dira herriko neska-mutikoak Udal Ludotekatik eta Gaztelektutik telematikoki jasotzen dituzten proposamenak etxean egiten. Sukaldaritza, papiroflexia, oreka-jolasak, artearekin lotutakoak... ez dute inolako eragozpenik denetik probatzeko, eta argazkiek erakusten dutenez, gainera, emaitza dotoreekin. Lan hori saritzeko, eskulanen argazkia bidali duten umeen eta gazteen artean herriko komertzioetan edo bertako artisauei erositako hiru opari zozkatuko dituzte hilero, hilabetearen amaieran. Apirileko zozketan, honakoak izan dira irabazleak: Aiuri Gisasola, Ibai Navas eta Paule Oñederra. Maiatzean, orain arteko bide beretik segituko dute ludotekan eta gaztelekuan; beraz, segi orain arte bezain fin!





“Hemen paseatu eta kirola egin daiteke”

SORALUZETIK CHELMSFORDERA



Asier Elizburuk (Soraluze, 1989) ekainean egingo ditu bi urte Ingalaterran. Chelmsford hirian bizi da, Londrestik hogeita hamarren bat kilometrora.

Zer moduz daroazue egoera?

Gu nahiko ondo gaude. Hemengo gobernuak hartu dituen neurriak ez dira hor hartu dituztenak bezain zorrotzak. Hemen kirola egiteko eta paseatzeko aukera daukagu. Kanean ez dabil jende asko. Hemen jendeak bestela ere etxean bizimodu asko egiten du, ez dauka kalera irtetzeko horrenbeste behar.

Lanera joaten zara?

Momentu honetan ez. Nik kafetegi batean egiten dut lan eta martxoaren amaiera aldetik kafetegi kate osoa itxita dago. Hor ERTE esaten zaion egoeran gaude. Hala ere, enpresak soldata osoa ordaintzen digu, hemen gobernuak laguntza enpresari bideratzen diolako.

Dena dela, hasita daude kateko denda batzuk zabaltzen eta beste batzuk zabaltzeko aukera aztertzen dihardute.

Hemen asko berba egin da Jonshonen estrategia aldaketaz.

Hemen ez horrenbeste, kritika gehiago etorri dira kanpotik. Hasieran estrategia ezberdina planteatu zen, baina nik uste hemengo bizitzeko moduagatik izan dela. Hemen jendeak parkeetara eta joaten jarraitu du, baina oso kontziente da distantziak mantendu behar dituela. Osasungintzari dagokionez, behin-behineko osasun zentro batzuk eraiki dituzte eta medikuntzako ikasleak ere baliatu dituzte egoerari aurre egiteko.

Etorkizunean ze asmo?

Oraingoz gustora gaude hemen eta baimena daukat beste bost urtean hemen bizitzeko. Ideia Euskal Herrira bueltatzea da, baina ez daukagu eperik.

1. Cambridge-ko King's Collegen, Josh bikotekidearekin batera.
2. Newcastle hirian.
3. Stonehenge monumentu megalitikoan.

Jatearen plazerra, bertatik bertara



Batzoki

eguneko menua
asteburuetako
karta eta bereziak

opiatarrak eta
hamburgerak
enikango bereziak

Denbira eta
lugarri anekoa
bestakak

Erreserbak: 943 75 20 55



IZZAGUIRRE
Igeltzeritza

Erakitin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era gutxietako igeltzeritza

30 urteko esperientzia • 610 838 913 • 649 967 209



Sorluzeko Kooperatiba Elkarte
150etik zahala

Arraindegia, janaria, erropak, etako freskak, etxera eramateko perlatza

Kalebarrea 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenerdik ostiralera:
09:30 - 02:30 eta 12:00 - 09:45
Larunbatik: 09:30 - 01:00

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatik eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

ELIZPE
HORTZ KLINIKA



Zure gaitako hortz klinika, punta puntako teknologiaz lan egiten dugu. C&C sistema bertakoa erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Iñaki Alamo
Medio Estomatologoa
K.Z. 48.001.004

Katxo Guzmán
Odontologia
K.Z. 48.001.040

Mirre gabeko anestesia, odontologia orokorra, primerako kirurgia eta mugimendu, ortodontia, ortodontia, erretentzio, estetika...

Enbatal 1 - Tel.: 943 75 10 13




Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, opiatarrak, radinak, pizzaak, gosaria...

Enkarguak egiten dira

Tel. 943 75 17 84

KLB6

Kalebarren 6
943 97 75 38
Mugur-utzi-reklamazio mugimendua



Alto
Tel. 943 75 25 67

Alto Jantzeriak

Alto Jantzeriak | ISOLID | BUNICO | VERO MODA

MATHEW BOOTCH
11000 - 11000 - 11000

Kontulan

aholkularitza
ABOKATUA K

Errenta aitortzen • Administrazioa lanak
Trafikoa burutzen • Lan-erlako aholkularitza
Enpresen kontuztuz/induztuz • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

TXURRUKA
JATEXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia

Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81




FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

BOLIA
TABERNA



Piribok, ardoak, konbinatuak
Gazte-giroko festa

Belarrak
lana eta belarrenda



Elikagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22
943 75 30 11

MABEL
ILEPAINDEGIA

- Rearentzako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Be-sustrairik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura esklusibokorra
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

ARRAINDEGIA
MORRATU PLAZA - 943 75 34 48

Arrain freskoa
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu



Euskalzaletasunaren alde:





Mosaiko honetan Bertso-katean parte hartu duten herritarrik gehienak ageri dira.

Plazentziatarrak bertsoan

189 HERRITARREK KANTATU DUTE BERTSO-KATEAN

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Martxoaren 28an ailegatu zen BertsoVid19 izeneko katea herrira (@argizetaren bidez) eta harezkeroko, bertsoaren birusa etenik gabe hedatu da plazentziatarren artean, aste honetan amaitutzat eman duten arte. Lau asteotan, guztira, 189 lagunek erantzun diote bertso-puntuari. Bada zerbait. Gainera, parte hartu duten askorentzat bertsoa egin duten lehenengo aldia izan da, bideoetan bertan aipatu dutenez.

Aitzakia ederra

Bertso-katea lagun sareen bitartez zabaldu da, lagunetik lagunera, lagun batek besteari jarritako puntuari erantzunez, eta konfinamendu egoera honetan aitzakia ederra bihurtu da elkar ikusteko; aspaldi ikusi gabeko lagunak eta senideak kantuz agurtu edota zirikatzeko. Zenbat buru hainbat aburu, eta bertsoetan ere askotariko gaiak aipatu dira: konfinamendua, birusa, txirringularitza, futbola, sagardoa, lana... Bakoitzak

berea. Kanturako lekuak ere ugariak izan dira: sofa, jangela, balkoia, traktorea, ukuilua, bizikleta eskatikoia, koadrilako lokala...

Plazentziatarren sarea

Katean, herrian bizi diren plazentziatarrez gain, herritik kanpo bizi diren plazentziatarrek ere kantatu dute, herri eta herrialde askotatik: Bergaratik, Elgoibartik, Donostiatik, Aizarnazabaldik, Iruratik, Gabiritik, Durangotik, Bilbotik,



Bartzelonatik, Burgostik,
Murtziatik, Austriatik,
Uruguaitik... Honenbestez,
agerian gelditu da
plazentziarren sarea,
Plazentziak, laguntasunak eta
euskarak lotu dituena.

Abiapuntua Andoainen

Beharbada askok ez dute
jakingo, baina bertso-katea
Andoainen abiatu zen,
BertsoVid19 izenarekin.
Andoaingo Aiurri
komunikabideak abiatu zuen
konfinamendua hasi eta egun
gutxira. Sekulako arrakasta izan
du, Euskal Herri osoko 1.800
bertsozale baino gehiagok parte
hartu dute eta. Gainera,
Soraluzen bezala, beste leku
askotan kateak bizitza propioa
hartu du eta hedatzen eta
hedatzen jarraitzen du,

andoaindarrek jatorrizkoa
amaitu zuten arren.

Hiru ale aparteko

Edurne Fariñasek dotore
erantzun zion Ina Borinagak
jarri zion puntuari:

*Nola izango dira
aurtengo oporrak
desberdinak seguru
izanez baikorrak
topatzen ez bagaitu
birus kutsakorrek
gozatuko ditugu
bertako altxorrek.*

**BERTSO-KATEA
AITZAKIA EDERRA
BIHURTU DA LAGUNEK
ETA SENIDEEK ELKAR
IKUSTEKO**

Eneka Ezenarrok, berri,
bere lehen bertsoa osatu
zuen Aritz Laskuraini
erantzunez:

*Herrixa konkistatzen
Napoleonekin,
erraz dominatuta
bere graziakin,
txikixa ta arrunta
baina bihotzakin
nire lehen bertsoa
izan da berakin.*

Pedro Aldazabalek ere
erantzun "bereziya" eman zion
bere alaba Iratiri:

*Plaentxiko herritik
dator notiziya,
agertu dala kararakol
beltz ta itsusiya,
horregatik daukagu
egoera bereziya
kendu nahi digulako
denoi biziya.*

ZORION AGURRAK



Xabier Alberdi Fayanas
Martxoaren 9an, urte 1. Zorion handi bat! Gure mutil koxkorra ya haunditzen zoiaz! Intza eta Arlenen partez.



Leire Laskurain Lopez
Apirilaren 22an, urtebete! Aurrerago ospatu beharko dugu! Etxekoen partez.



Ainhoa Galarraga eta Amaia Heras
Apirilaren 25ian eta maiatzaren 5ian Zorionak guapisimasss!! Hau dena bukatzean ospatuko dugu behar den bezela.



Ioritz Reglero
Maiatzaren 17an, 11 urte. Zorionak laztana! Asko maite zaitugu! Etxekoen partez.



Eneko Zubiaurre Mendizabal
Martxoaren 27an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako zure hirugarren urtebetetzian! Patxo asko etxeko guztien behar den bezela.

Hugo Baz Gil
Martxoaren 21ean, 3 urte. Zorionak Hugo! Zure hirugarren urtebetetzian patxo handi bat. Enekoen partez!



Markel Cerrejon eta Urko Unamuno
Apirilaren 26an, 8 urte. Zorionak bikote! Aurten bakoitzik balkoira elkar zoriondu bihako dogu baina laister egongo gara kalia lagun eta familixakuekin ospatzeko. Asko maitez zaitzuegu.



Gorka eta Idara
Maiatzaren 2an, 39 urte, eta 16an, urtetxo 1. Asko maite zaituztegu!



Anje
Zorionak Anje! Apirilaren 17an, Bi urte handi!!! Patxo handi bat etxeko danon partez.



Oscar Gil
Zorionik beroenak opa dizkizugu. Maite zaitugu! Familia guztiaren partez.



Sugoi
Apirilaren 11n, 7 tirakada belarritik. 7 besarkada eta laztan familiaren partetik.



Alex Ros
Apirilaren 25ean, 46 urte. Zorionak, Alex! Soraluzeko eta Eibarko familia guztiaren partetik.



Idurre
Maiatzaren 6an, 5 urte. Zorionak! Gure etxeko printzesa...



Done
Maiatzaren 4an. Zorionak! Senar, aita eta aitita bikaina zara.



Iosune Jauregi
Apirilaren 18an, 38 urte. Zorionak etxekuen partez!




Txeren eta Aiora
2010-5-1. Hamar urte maitasunez. Hamar urte laztanez bete. Jarraitu beste hamar zorionez. Etxekoak.



Maria Luisa De la Fuente eta Iraultza Ostolaza
Martxoaren 22an eta 20an. 78 eta 17 urte. Zorionak bixoi! Oparirik onena bixon arteko besarkada emon ahal izango dozuenian! Asko maitez zaitzuztegu! Sugar, Aetz eta etxekoen partez.

JAIOBERRIAK



Polonia Cortes Cortes
Martxoaren 29an jaio zen

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Jaione Barrenetxea Unamuno
Rogelio Ordax Abril

Jaiotakoak
Polonia Cortes Cortes

ESKELAK

OROIGARRIA

Rogelio Ordax Abril



2020ko apirilaren 3an hil zen Soraluzen, 81 urte zituela.

Bere alabok eskerrak eman nahi dizkiegu euren doluminak, laguntza, maitasuna eta babesa eskaini diguten guztiei. Denontzat hain gogorrak izaten ari diren egun hauetan, lagun, senide eta ezagunek ez dute izan azken agurra emateko aukerarik ere. Eurekin batera gaude doluan.

Aita, zure oroimena gure bihotzetan izango da beti.

Mertxe, Arantza, Ana.

#MarrazuEtxean MARRAZKI LEHIAKETA

0 eta 15 urte bitartekoentzat

PARTE HARTZEA

- Gai librea, zuri beltzean edo koloretan.
- Parte hartzeko marrazkiaren argazki bat bidali marrazuEtxean@gmail.com helbidera maiatzak 17rako.
- Gehienez marrazki bat haur bakoitzeko.
- Mezuan hauraren izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefono zenbakia zehaztu behariko dira.

SARIAK

- 6 sari banatuko dira: 50 euroko baliodun txartelak, herriko dendaren batean erabiltzeko.
- Ausaz, zozketa bidez aukeratuko dira irabazleak parte-hartzaile guztien artean.
- Irabazleei saridunak direla jakinaraziko zaie maiatzaren 18tik aurrera.

Lehiaketara aurkeztutako marrazki guztiak www.plaentzia.eus webgunean ikusi ahal izango dira maiatzaren 18tik aurrera

Antolatzaileak:
Udaleko Kultura Batzordea
Krabelin Pintura Eskola



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

aurten

5ehun

baietz!!

Badakizu errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera duzula? Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba?
Euskaraz, zeure aukera da!



SORALLUZKO UDALA
Hibontza Puztuharen Batzordea



PIL-PILEAN

ERRENTA
2019



Etxealditik **EUSKARALDIRA**

Ohitura aldaketa etxetik hasten da



@euskaraldia



@belarripest / @ahobizi



www.euskaraldia.eus/etxealdia

